

Zeluloidea eta zelulosa



Ilaila bukatzeaz dago eta harekin batera iristen zaizkigu oporren ondorengo sindromea, bulegoko lankide berriekin elkarrizketa interesgarriak, eguraldi aldaketagatik hotzeria, telesail berriak, futbol liga, eta nola ez, Zinemaldia. Iraileroko kontua izan arren, oraindik ez dut ikasi. Zinea izugarri gustatzen zait, eta aurten ere liburuxka hartu badut ere, konturatzerako sarrerak agortu dira. Ez naiz kilometrotako ilaratan galitzen den horietakoa, eta beraz, aurten ere filmik ikusi gabe geratu beharko! Zeluloidea eta jendetza maiz omen doaz

bat, baina ez da Zinemaldiaren ezaugarririk adierazgarriena. Zinea bera ere ba ote da?

Autoa Grosen aparkatu eta Parte Zaharrera nindoala, Maria Cristina hotelari zerion argi gorriari so, burdel kutsua hartu diot, baina berehala alde egin dit susmoak, Alemaniatik espreski ekarritako limusinaren distirak erakarri bainau. Ezin izan diot gerturatzeko irrikari muzin egin. Zeluloidearen glamourra, pentsatu dut. Lagunek esandako tipoa ea ikusten dudana. Kotxeei erlojutik hitz egiten zion tipoa omen dator, larru beltzez lehen, eta azken aldiaren gerripeko gorriekin hondartzan korrika dabilena. Metro eta metrotako oihalak zintzilik. Baina, gerripekoaren seinalerik ez.

Zubira hurbiltzen ari nintzela, telebis-

ta kate erdaldun baten publizitatez jositako lonapean eserita, emakume bat ikusi dut. Zapia buruan, baina kaleko hotzak sortutako arraildurak ezin estali. Zelulosazko musuzapia eskuetan, diru eske. Munduaren begiradatik at. Haren buru gainean eslogan batek zera zioen: *Zineak batzen gaitu*. Zientzi fikzioa.

Udal Gobernuak halakoetan kaleak garbitzea agintzen duela entzun dut. Gertuko kaleetakoak, bederen. Itxura kontua, gizatasunik ez. Erakunderik gertukoena omen da. Besteetara jotzeko moduan. Bada, hala ere, borrokatzen duenik. Kaleak hustu beharrean, kalera irten eta era ludikoan gure artean dau den kultura eta errealitateak azaldu nahian. Euskadiko Gobernu Kanpoko Erakunde Koordinakundeak *Mundu*

zabala, errealitate anitz lelopean sentsibilizazio jardunaldira deitu zuen joan den larunbatean. Tailer, musika eta emanaldien artean, lankidetzarako jolasak, bidezko merkataritza eta Saharako karpa montatu zituzten. Pobrezia Zerorentzako tarterik ere izan zen, helburu zehatz batekin: mundu mailako buruzagi eta agintariak estutzea 2000. urtean gosea eta pobrezia desagertarazteko hartutako konpromisoak bete ditzaten.

Ekitaldi aipagarria iruditu zitzaidan. Ahalegin azpimarragarria. Txalagarria bezain hutsala esango dute batzuek. Atzo telebista ikusten ari nintzela, gauean eta euskaraz, auzotar bati eginiko elkarrizketa jarraitu nuen. Pentsatzen duguna aztertuko bagenu, momentu oro nor bere buruaz ari garela konturatuko ginatkeela zioen. Jabetu eta aldatzen joango bagina, halako tirania batetaz libratuko omen ginatke. Zer pentsatua eman zidan. Esloganak aipatuta hau datorkit burura: *Zer nahi duzu bihar?*